



MINISTERIO
DE IGUALDAD

SECRETARÍA DE ESTADO
DE IGUALDAD
Y CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO

DELEGACIÓN DEL GOBIERNO
CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO

2019ko Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkestaren egikaritze-laburpena

NIPO: 048-22-035-7

Catálogo de Publicaciones de la Administración General del Estado: <https://cpage.mpr.gob.es>

2019KO EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN MAKROINKESTAREN EGIKARITZE-LABURPENA

Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkesta Espainian indarkeria mota honen gainean egiten den estatistika-lan esanguratsuena da. Gainera, emakumearen aurkako indarkeriaren prebalentzia neurtzeko estatistika ofizial bakarra da. 1999tik gutxi gorabehera 4 urtero egiten da eta Estatistika Plan Nazionalak barne hartzen du. 2011ko, 2015eko eta 2019ko edizioen elaborazioaren arduraduna Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza izan da. 2019ko Makroinkesta Espainian egiten den seigarrena da. **Helburu nagusia emakume izateagatik indarkeria motaren bat jasaten ari diren edo jasan duten 16 urte edo gehiagoko Espainian bizi diren emakumeen ehuneko azagutzea da.**

2015 urtean, Makroinkestako galdetegia modu aipagarrian aldatu zen aurreko edizioekiko (1999, 2002, 2006, 2011). Aldaketa honekin, nagusiki Nazio Batuen Estatistika Dibisioak egindako Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatistiken Produkzioarako ildoak hartu zituen erreferentziatzat, Espainian emakumearen aurkako indarkeriaren errealitatea zorrotasun handiagoz neurtzeko asmoz. **2019ko Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkestaren bitartez inkestaren kalitatearen hobekuntza prozesuarekin jarraitu da.** 2015eko galdetegia erabili da oinarri bezala, indarkeriaren dimentsio gehiago atzeman ahal izateko handitu dena, horrela, galdetegi berriak etxeko indarkeria eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren (Istanbuleko Hitzarmena) eskakizun estatistiko guztiak bete ditu eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu-itunaren hainbat neurri erantzuna ere eman dio.

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak metodologia elaboratu, galdetegia diseinatu eta emaitzak aztertu ditu. Bestalde, Ikerketa Soziologikoen Zentroa landa-sare arduraduna izan da eta bilketa lanak egin ditu (laginaren diseinua, elkarrizketak, kodifikazioa, arazketa). Makroinkesta Espainian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakumei zuzenduta dago. **9.568 emakume elkarrizketatu dira, lagin esanguratsua osatuz.**

2015eko edizioarekiko berritasun nagusien artean aipatzekoak dira: 1) sexu-jazarpena eta eraso errepikakorrak edo stalking-a neurtzeko galderak sartzea, 2) bikotetik kanpoko sexu-indarkeriaren inguruko galderak zabaltzea sexu-indarkeria forma posibleak, salaketak, laguntza formal eta informala eskaera, jasotako laguntzaren gogobetetzea eta abar azagutzeko (orain arte bikote barruko indarkerian soilik egiten ziren galderak), eta sexu-indarkeria gertakari buruzko xehetasun gehiago jakiteko, hala nola taldeko erasoak edo erasoaren lekua, 3) bikotean indarkeria sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa neurtzeko itemak gehitzea, 4) ezgaitasuna daukaten emakumeen ezgaitasuna indarkeriaren ondoriozkoa den jakiteko galdera berriak, 5) lesio, ospitaleratze, laneko baja eta indarkeriaren ondorio fisiko edo psikologikoei buruzko galdera berriak.

Lan honen bidez emakumearen aurkako indarkeriaren hedaduraren eta formen ikuspegi xehatua eta eguneratua eman nahi da, baita horrekin lotutako hainbat alderdiren ere.

EMAITZA NAGUSIEN laburpena eskainiko da jarraian. Ikerlana emaitza xehatuekin Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzaren web-orrian deskarga daiteke.

A. GUZTIZKO INDARKERIA: BIKOTEAREN INDARKERIA, BIKOTE HARRENANIK IZAN EZ DEN PERTSONEN INDARKERIA FISIKO EDO SEXUALA, SEXU-JAZARPENA ETA STALKING-A

Lehenik eta behin, inkestaren emaitzetatik ondorioztatzen den indarkeriaren zifra orokorra erakusten da. Kontuan hartu beharra dago inkestan neurtutako indarkeria guztiei egiten zaiela erreferentzia, bortxaketa bat desiratu gabeko begirada lizun batetik begiztatuz. Emakumeek jasaten dituzten eguneroko indarkeriak, gutxi gorabehera larriak, baina guzti horiek indarkeria. Makroinkestako datuek ikusgarritasuna emateko eta desagerrarazteko politika publikoak garatzeko balio behar dute.

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko 2 emakumeetatik 1ek (% 57,3) bere bizitzan zehar indarkeria jasan du emakume izateagatik. Hau da, **11.688.411 emakumek**.

- **Azken 12 hilabeteetan 5etik 1ek** (% 19,8) jasan du. Hots, 16 urte edo gehiagoko **4.048.273 emakume** dira.

Emakume gazteek hein handiagoan jasaten dituzte: 16 eta 24 bitarteko emakumeen % 71,2ak eta 25 eta 34 urte bitarteko emakumeen % 68,3ak haien bizitzan zehar indarkeria motaren bat jasan dute, 65 urte edo gehiagokoen % 42,1aren aurrean.

B. EGUNGO BIKOTEKIDEAREN, BIKOTEKIDE OHIEN EDO BIKOTE HARREMANIK IZAN EZ DIREN PERTSONEN INDARKERIA FISIKO EDO SEXUALA

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean, % **13,7ak** (2.802.914 emakume) jasan du sexu-indarkeria bere bizitzan zehar edozein pertsonarengandik (egungo bikotekidea, bikotekide ohiak edo bikote harremanik izan ez diren pertsonak) eta % 1,8ak (359.095 emakume) azken 12 hilabeteetan.

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean, % **21,5ak** (4.387.480 emakume) jasan du **indarkeria fisikoa bere bizitzan zehar edozein pertsonarengandik** (egungo bikotekidea, bikotekide ohiak edo bikote harremanik izan ez diren pertsonak) eta % 1,7ak (351.770 emakume) azken 12 hilabeteetan.

C. SEXU-INDARKERIA BIKOTETIKANPO

1- Prebalentziak

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean, % 6,5ak (1.322.052 emakume) jasan du sexu-indarkeria bere bizitzako momenturen batean bikote harremanik ez duten eta izan ez duten pertsona batengatik, eta % 0,5ak (103.487) azken 12 hilabeteetan.

- 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean % **3,4ak (703.925 emakume)** jasan du sexu-indarkeria hartzaroan (15 urte bete baino lehen).

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean % 2,2a (453.371 emakume) noizbait bortxatua izan da bere bizitzan zehar.

Bortxatuak izan diren emakumeen % 14,6ak sexu-indarkeriazko beste egoera batzuk ere bizi izan ditu.

Sexu-indarkeria motaren bat jasan duten emakumeen % 13,7ak baieztatzen du alkoholaren edo drogen eraginpean zeudela bortxatuak izan zirenean. 16 urte edo gehiagoko emakumeen % 0,09a dira (181.258 emakume).

2- Erasotzaileak

Sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 99,6ak **erasotzaile gizon** batengatik pairatu du.

Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % **21,6ak** adierazi du **erasotzailea familiako** gizon bat zela, % **49,0ak** gizon ezko **lagun edo ezezagun** bat eta % 39,1ak erasotzailea gizon ezezagun bat zela esaten du. Eraitza hauek interpretatzeko garaian, kontuan izan behar da sexu-erasoen multzoa barne hartzen dituztela, bortxaketa batetatik ukitutara. 2015 urteko makroinkestan ikusi zen¹ bortxaketetan eta beste sexu-indarkeria forma batzuetan erasotzaile

¹ Makroinkesta 2015: ezezagunengandik jasandako ukituen eta antzeko sexu-erasoen ehunekoa %50a baino zertxobait altuagoa da, eta bortxaketen kasuan % 18,8an zen bortxatzailea ezezaguna. 2019ko makroinkestarako diseinatutako galdetegiaren luzera murriztu denez gero, bortxaketen kasuan ezin izan da modu zehatzean erasotzailearen inguruan galdetu, hortaz ez dago informazio hori eguneratuta. Hala ere, suposatzen da datu horiek ez direla modu adierazgarrian aldatzen lau urteko aldian. 2019ko makroinkestan, bortxaketa bat jasan duten emakumeen % 74,6ak sexu-indarkeriazko beste egoera batzuk ere bizi izan ditu,

mota oso ezberdina zela.

3- Sexu-indarkeriaren maiztasuna

Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 50,4ak indarkeria hau behin bakarrik pairatu duela adierazi du eta % **49,6ak behin baino gehiagotan gertatu** dela esan du. Behin baino gehiagotan gertatu zela erantzun duten % 41ak, gutxienez hilabetean behin sexu-indarkeria jasaten zutela baieztatu du.

4- Taldeko erasoak eta erasoaren lekua

Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % **12,4ak** dio sexu-erasoren batean **pertsona batek baino gehiagok hartu zutela parte**.

Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 44,2ak erasoak etxebatean (% 18,2ak bere etxe propioan, % 20,1ak erasotzailearen etxean, % 9,7ak beste pertsona baten etxean), % 17,8ak taberna edo diskotekaren batean, eta % 32ak gunere irekietan, hala nola kalean edo parkean, gertatu zela esan du.

- **Bortxaketa bat jasan duten emakumeen kasuan, sexu-erasoren bat etxean gertatu zela aipatu zuten ehunekoak esanguratsuagoak dira (% 59,1).**

5- Salaketa

Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 8ak eraso hauetakoren bat Polizian, Guardia Zibilean edo Epaitegian **salatu** du. Ehuneko hori % 11,1ra igotzen da beste pertsona edo erakunde batek jarritako salaketak ere kontuan hartzen badira.

Sexu-indarkeria salatu ez duten emakumeei, ezta beraiek, ezta Polizian, ez eta epaitegian, **salaketa ez egiteko arrazoiengatik** galdetzen zitzaizkien. **Arrazoi errepikatuena "adingabekoa nintzen, ume bat nintzen" izan da, emakumeen % 25,4ak aipatzen duelarik**. Ondoren, gertutakoari garrantzirik ez ematea (% 30,5), lotsa (% 25,9), erasoak "gauza hauei buruz hitz egiten ez zen beste garai batzuetan" gertatu izana (% 22,1) eta sinestuko ez ziotenaren beldur izana (% 20,8) azaldu dira.

- **Bortxaketa jasan duten emakumeen kasuan gehien aipatutako arrazoiak lotsa (% 40,3) eta sexu-indarkeria gertatu zenean adingabea izatea (% 40, 2) dira.** % 36,5a sinestuko ez diotenaren beldur da eta %23,5a erasotzailearen beldur.

6- Laguntza formal eta informala bilaketa sexu-indarkeriaren ondorioz

Sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 10,2ak gertatutakoari aurre egiteko laguntza psikologikoa bilatu zuten (horietako %21,8a bortxaketa jasan duten emakumeak dira) eta % 6,5ak laguntza medikoa (% 14,4a bortxaketa jasan duten emakumeak). Gainontzeko zerbitzuak oso gutxi aipatu dira. **Sexu-indarkeria jasan duten biktimen % 84,1ak eta bortxaketa jasan duten emakumeen %67,2ak ez du gertatutakoaren ostean laguntza formala bilatu.**

Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 39,9ak emakumezko lagun bati, % 28,3ak bere amari, % 15,5ak gizonetzko lagun bati, % 15,2ak bere aitari eta % 14,0ak bere ahizpari kontatu dio gertatutakoa. % 26,6ak inori kontatu ez ziola baieztatzen du. Jasandako sexu-indarkeria inguruko norbaiti kontatu zuten emakumeei galdetu zaie pertsona horrek nola erreakzionatu zuten. Kasu guztietan erasotutako emakumea babestea izan da gehiengoa, % 70 eta % 93,4aren bitartean. Bestalde, inguruko norbaiti bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan dutela kontatu izana eta babesa jaso izana erantzun duten emakumeei, honek salatzea gomendatu zuten galdetzen zaie. Salatzea gomendatu zutenen ehunekoak ez da inola ere % 50era heltzen (% 37,9 amak, % 42,9 aitak, % 30,5 bikoteak, %20,1 lagunak,

besteak beste).

7- Bikotetik kanpoko sexu-indarkeriaren ondorioak

Bere bizitzako momenturen batean bikote harremanik ez duten eta izan ez duten pertsona batengatik sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 16,2ak, **indarkeria** honen **ondorio diren lesio** fisikoak pairatu ditu bere bizitzako momenturen batean, eta bortxaketa bat jasan duten emakumeen ehunekoa % 37,8ra igotzen da.

- Bortxaketa jasan duten emakumeen % 25ak ebakiak, urratuak, ubeldurak edo minak izan ditu eta % 18,7ak lesioak genitaletan. Ehuneko hauek, bortxaketa batek ageriko aztarna fisikoak utzi behar dituen uste hedatuarekin kontrajartzen dira.

Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 53ak esan du **ondorio psikologikoak** eragin dizkiela eta ehunekoa % 78,9ra igotzen da bortxaketen biktimen kasuan.

Sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 12,7ak substantziaren bat (**medikamentuak, alkohola edo drogak**) kontsumitu dute gertatutakoari aurre egiteko. **Bortxaketen biktimen kasuan** ehunekoa % 26,6ra igotzen da.

Haien bizitzetan zehar momenturen batean bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten eta ezgaitasun bat duten emakumeen artean, % 14,3ak dio **ezgaitasuna** sexu-indarkeriaren ondorio dela.

Sexu-indarkeriak kaltetutako emakumearen osasunean luzaroan irauten duten ondorioak uzten ditu, horren eraginez osasun-laguntza zerbitzu ezberdinetara maiztasun gehiagorekin joaten dira, nahiz eta sexu-indarkeria gertaera horiek iraganean gertatu. Bada, sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen % 43,7ak eta bortxatuak izan diren % 58,8ak baieztatzen du elkarrizketatu aurreko 12 hilabeteetan arazo edo gaixotasun batengatik larrialdi zerbitzuren batera joan direla, sexu-indarkeria jasan ez dutenak, berriz, % 28,3a dira. Era berean, sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen % 22,3a eta bortxatuak izan den % 31,9a psikologoarengana, psikoterapiara edo psikiatrarengana joan da elkarrizketa aurreko 12 hilabeteetan, ordea, sexu-indarkeria jasan ez duen ehunekoa % 9,7 da. Sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen % 41,6ak eta bortxatuak izan diren % 49,4ak dio, elkarrizketa aurreko 12 hilabeteetan, osasun arrazoiengatik egunen batean ohean geratu behar zian zirela. Bikotetik kanpo sexu-indarkeria inoiz jasan ez dutenak, aldiz, % 26,8a osatzen dute.

Inoiz sexu-indarkeria jasan ez duten 16 urte edo gehiagoko emakumeen ²% 6,5ak haien bizitzako momenturen batean **suizidio pentsamenduak** izan dituzte. Ehunekoa % 27,7ra igotzen da bikotetik kanpo sexu-indarkeria motaren bat jasan duten emakumeen artean eta % **38,2**ra haien bizitzako momenturen batean **bortxatuak izan diren emakumeen artean**. Alegia, bortxatuak izan diren emakumeek inoiz sexu-indarkeria jasan ez duten emakumeek baino 6 aldiz gehiagoko arriskua daukate suizidio pentsamenduak izateko.

D. INDARKERIA FISIKOA BIKOTETIK KANPO

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean, % 13,4ak (2.737.358 emakume) jasan du indarkeria fisikoa bere bizitzako momenturen batean bikote harremanik ez duten eta izan ez duten pertsona batengatik eta % 0,9ak (177.530 emakume) azken 12 hilabeteetan. % 8,7ak (1.778.550 emakume) jasan du indarkeria fisikoa 15 urte bete baino lehen.

² Ehuneko hau % 2,9a da soilik, inkestan galdetu zaien indarkeria motarik jasan ez duten emakumeen artean eta ehuneko honek argiago adierazten du indarkeriak emakumeen osasunean duen inpaktua.

Erasotzaile aipatuenak aita (bikotetik kanpo indarkeria fisikoa jasan duten emakumeen % 23,4ak dio aitaren erasoak jasan zituela) eta gizon ezezagunak dira (% 17,5), amari jarraiki (% 16,0). Hurrengo aipatuenak ikasgelako neskek (% 14,8) eta ikasgelako mutilak (% 11,6) dira.

16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean bere bizitzako momenturen batean bikote harremanik ez duten eta izan ez duten pertsona batengatik indarkeria fisikoa jasan dutenen % 41,2ak lesioak izan ditu bere bizitzako momenturen batean indarkeria honen ondorioz.

E. SEXU-JAZARPENA

Inkestak desiratu gabeko eta konnotazio sexuala zuten jokoaren inguruko galderak zituen: begirada setatsu eta lizunak, nahi ez izandako kontaktu fisikoa, exhibizionismoa, irudi edo argazki sexualki esplizituak bidaltzea, emakumea mindua, umiliatua edo beldurtua sentiarazi dutenak, adibide batzuk aipatzearren.

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean, **% 40,4ak (8.240.537 emakume) sexu-jazarpena jasan du haien bizitzeko momenturen batean** eta % 10,2ak (2.071.764) azken 12 hilabeteetan.

- Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean **% 18,5ak (3.778.356) jasan du sexu-jazarpena** haurtzaroan (15 urte bete baino lehen).

Sexu-jazarpena jasan duten emakumeen % 74,9ak (16 urte edo gehiagoko emakumeen % 30,3a) esan du beldurtuak sentitu direla begirada setatsu eta lizunen ondorioz eta % 40,4ak (16 urte edo gehiagokoen % 17,5a) nahi ez izandako kontaktu fisikoa pairatu du, esate baterako, beharrezkoa ez zen hurbiltasuna, gorputzeko atalak ukitzea edo musuak, adibide batzuk jartzearen.

Sexu-jazarpena jasan duten emakumeen % 98,2ak **erasotzaile gizon** batengatik pairatu du. Erasotzailearen sexuari buruzko galdera hau erantzun duten sexu-jazarpena jasan duten emakumeen % 73,9ak aipatu du erasotzailea gizonezko ezezagun bat zela, % 34,6ak esan du gizonezko lagun edo ezezagun bat izan zela eta % 17,3ak erasotzailea laneko gizonezko bat zela.

Sexu-jazarpena jasan duten emakumeen % 75,2ak behin baino gehiagotan gertatu dela baieztatu du eta % 24,1ak behin bakarrik izan zela esan du.

Sexu-jazarpena jasan duten emakumeen % 2,5ak Polizian, Guardia Zibilean edo epaitegian egin zuen salaketa eta % 1,2a medikuarengana edo psikologoarengana joan zen. Stalking-a inguruko norbaiti kontatzea da ohikoena: sexu-jazarpena jasan duten emakumeen % 40,3ak lagun bati kontatu zien, %19,5ak familiako bati eta % 14,8ak bikote edo bikotekide ohiari. % 39,6ak inori kontatu ez ziola baieztatzen du.

F. STALKING-A EDO ERASO ERREPIKAKORRAK

Inkestan elkarrizketatutako emakumeei behin eta berriro beldurra, antsietatea edo larritasuna eragin zien pertsonaren portaeren inguruan galdetzen zitzairen: telefono-dei lizunak, mehatxuzkoak, gogaikarriak edo isilak, emakumeari jarraitu edo zelatatu diotenak, bere gauzak nahita kaltetu dituztenak edo interneten edo sare sozialetan proposamen desegokiak egin dizkietenak, adibide batzuk aipatzearren.

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean, **% 15,2ak (3.095.357) jasan du stalking-a haien bizitzeko momenturen batean**, eta % 3,0ak (613.917) azken 12 hilabetetan.

- % 3,7ak (759.577) pairatu du stalking-a hartzaroan (15 urte bete baino lehen).

Stalking-a jasan duten emakumeen % 47,2ak (% 7,2a 16 urte edo gehiagokoa) telefono-dei lizun, mehatxagarri, gogaikarri edo isilak jasan dituztela kontatu du eta % 40,6ak (% 6,2a 16 urte edo gehiagokoa) jarraitu edo zelatatu egin dituztela, adibide batzuk jartzearen.

Stalking-a jasan duten emakumeen % 87,9ak gizonezko **erasotzaile** batengatik pairatu du. Erasotzailearen sexuari buruzko galdera hau erantzun duten stalking-a jasan duten emakumeen % 39,9ak dio erasotzailea gizonezko lagun edo ezagun bat zela, % 33,6ak esan du gizon ezezagun bat izan zela eta % 21,3ak erasotzailea egungo gizonezko bikote a edo bikotekide ohia zela. % 6,7ak aipatu du erasotzailea ikasgelako mutil bat zela eta % 3,1ak erasotzailea ikasgelako neska bat zela.

Stalking-a jasan duten emakumeen % 20,1ak bi aste baino gutxiago iraun zituela esan dute, % 27,9ak 2 eta 3 aste bitartean iraun zuela, % 25,1ak 3 hilabete eta urte baten bitartean eta % 24,7arentzako eraso errepikakorrek urte bat baino gehiago iraun zuten.

Stalking-a jasan duten emakumeen % 33,2ak gutxienez astean behin izaten zela adierazi dute eta % 26,6ak egunero edo ia egunero zela. Hau da, stalking-a jasan duten emakumeen ia %60ak asteroko edo eguneroko maiztasunarekin jasaten zituzten erasoak.

Haien bizitzetan zehar stalking-a jasan duten emakumeen % 12,1ak Polizian, Guardia Zibilean edo epaitegian egin zuen salaketa eta % 4,5a medikuarengana edo psikologoarengana joan zen. Polizian, Guardia Zibilean edo epaitegian egindako salaketan ehunekoa txikia izan arren, bikotetik kanpoko sexu-jazarpen edo sexu-indarkeriagatik salaketena baino handiagoa da.

- Stalking-a inguruko norbaiti kontatzea da ohikoena: stalking-a jasan duten emakumeen % 43,7ak lagun bati kontatu zien, %32,7ak familiako bati eta % 19,ak bikote edo bikotekide ohiari. % 22,8ak inori kontatu ez ziola baieztatzen du.

G. INDARKERIA BIKOTEKIDEAN EDO BIKOTEKIDE OHIAN

1- Prebalentziak

Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakume guztien artean % **14,2ak (2.905.489 emakume)** indarkeria fisiko eta/edo sexuala jasan du bikote batengatik, egungoa edo iraganekoa, haien bizitzan momenturen batean. % **1,8ak (374.175 emakume)** indarkeria fisiko eta/edo sexuala jasan du bikote batengatik, egungoa edo iraganekoa, azken 12 hilabetetan.

Hurrengo taulan erakusten dira bikotean bizitzan zehar eta azken 12 hilabetetan izandako indarkeria prebalentzia nagusiak.

Bikote batengatik (egungoa edo iraganekoa) jasandako indarkeriaren prebalentzien laburpena haien bizitzan zehar eta elkarrizketatu aurreko 12 hilabetetan (%=ehuneko)

	Bizitzan zehar		Azken 12 hilabeteak	
	16 urte edo gehiagoko Espainian bizi diren emakumeen Total arekiko %	Indarkeria jasaten duten emakumeen kopuru balioetsia	Espanian bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakumeen total arekiko %	Indarkeria jasaten duten emakumeen kopuru balioetsia
1. Fisikoa	11,0%	2.234.567.	1,0.	194.478.

2. Sexuala	8,9%	1.810.948.	1,3.	269.852.
3. Fisiko eta/edo sexuala	14,2%	2.905.489.	1,8%	374.175.
4.Emozionala	23,2%	4.744.106.	5,4%	1.101.661.
5.Kontrola	27,0%	5.500.704.	6,6%	1.355.620.
6.Ekonomikoa	11,5%	2.350.684.	2,0%	407.793.
7.Beldurra	13,9%	2.827.243.	3,7%	761.844.
8.Psikologikoa (emozionala, kontrola, ekonomikoa, beldurra)	31,9%	6.517.062.	10,6%	2.164.006.
9.Indarkeria guztira (3+8)	32,4%	6.605.825.	10,8%	2.197.691.

Bikote batengandik, egungoa edo iraganekoa, indarkeria fisikoa eta/edo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 96,9ak indarkeria psikologiko (emozionala, kontrola, ekonomikoa edo beldurra) motaren bat jasan izana ere adierazten du.

2- Indarkeriaren maiztasuna

Egungo bikotearengandik indarkeria fisikoa jasan duten emakumeen % 25,0 ak behin bakarrik pairatu duela adierazi du eta % 75ak **behin baino gehiagotan gertatu** dela esan du.

- **Bikotekide ohiengatik** indarkeria jasan duten emakumeen kasuan, % 17,3ak behin bakarrik gertatu zela dio, aldiz, %82,5ak **behin baino gehiagotan gertatu** zela adierazi du.

Egungo bikotearengandik sexu-indarkeria jasan duten emakumeen %10,0ak baieztatzen du behin bakarrik gertatu zela, ordea, %86,2ak **behin baino gehiagotan gertatu** zela esan du.

- **Bikotekide ohiengatik** sexu-indarkeria jasan duten emakumeen kasuan, % 11,1ak behin bakarrik gertatu zela dio eta %88,8ak **behin baino gehiagotan gertatu** zela.

Egungo bikotekidearengatik indarkeria psikologiko emozionala jasan duten emakumeen % 14,9ak behin bakarrik pairatu duela adierazi du eta % 84,3ak **behin baino gehiagotan gertatu** dela esan du.

- **Bikotekide ohiengatik** indarkeria jasan duten emakumeen kasuan, % 8,2ak behin bakarrik gertatu zela dio, aldiz, % 91,3ak **behin baino gehiagotan gertatu** zela adierazi du.

3- Salaketa

- Emakumeen % 21,7ak bikote batengatik, egungoa edo iraganekoa, indarkeria fisikoa, sexuala, emozionala edo beldurra sentitzea (IFSEB)³ salatu du (emakumeak berak edo beste pertsona batek edo erakundeak) eraso hauetakoren bat polizian edo epaitegian⁴. Biztanleriaren portzentajea estrapolatuz, 16 urte edo gehiagoko **1.109.509** emakumek bikote barruko indarkeria salatu dutela ikusten dugu.

- **Indarkeria fisikoa eta/edo sexu-indarkeria** jasan dutenak soilik hartzen baditugu, **salaketen portzentajea zertxobait handiagoa, da % 32,1 ingurukoa.**
- **Portzentajeak asko aldatzen dira egungo bikotekidearen edo bikotekide izan denaren indarkeriaren salaketa bereizten baditugu:** bikotekidearen aldetik IFSEB jasan duten emakumeak % 5,4 dira; aldiz, bikote ohiaren partetik IFSEB jasan dutenen % 25,0 salatu dute (%12,5 eta % 34,3 hurrenez hurren, indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeria jasan dutenentzat).

³ Emakume horiek salaketa eta ondorio blokerak bideratzen ziren; ez ordea kontrol edo indarkeria ekonomikoa jasaten zutenak. 16 urte edo gehiagoko emakumeen % 25a dira (5.108.454 emakume)

⁴ Nahiz eta iruditu portzentaje hori 2015eko makroinkestakoa baino askoz ere txikiagoa dirudien (% 28,6), aipatu beharra dago portzentajeak ezin direla alderatu, 2015eko makroinkestan ez baitziren bideratzen modulu honetara indarkeria emozionala jasan zituztenak. Indarkeria fisikoa sexu-indarkeria edo beldurra jasan duten emakumeen salaketen portzentajea kalkulatzeko badugu, % 28,7 lortuko genuke, 2015ekoaren berdina. Beraz, 2015eko eta 2019ko edizioen artean ez dago salaketa-tasen arteko alderik.

Sexu-indarkeria salatu ez duten emakumeei, ezta beraiek, ezta Polizian ez Guardia Zibilean, ez eta IFSEB epaitegian, **salaketa ez egiteko arrazoientatik** galdetzen zitzaien. **Egungo bikotean indarkeria** jasan duten emakumeen kasuan, ez salatzeko arrazoi aipatuena bakarrik ebatzi izana izan da (% 49,1) edo jasandako indarkeriari garrantzirik ez ematea (% 46,4). **Bikotekide ohiengandik indarkeria** jasan duten emakumeen kasuan, ez salatzeko arrazoi aipatuena bakarrik ebatzi izana (% 53,4) eta harremana bukatu izana (% 31,8) dira. Bere baliabide ekonomikoak ez izatea aipatzen dute egungo bikotekidearen indarkeria jasaten duten emakumeen % 2,6 eta bikotekide ohien kasuan, % 3,1k.

- Bikotekidearen aldetik **indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeria** jasan duten baina ez beraiek, ez Poliziak edo Guardia Zibilak ez eta Epaitegian ere, salatu ez duten emakumeek galdera horri erantzuten diotena aztertzen badugu, salaketa ez jartzeko arrazoiak ez dira oso desberdinak IFSEB jasan dutenek emandakoen aldean. **Egungo bikotekidearen aldetik indarkeria kasuan**, % 47,2k dio beraien kabuz konpondu dutela, eta % 37,3k uste du gertatutakoa ez zela garrantzitsua izan. Erasotzaileari beldurrerengatik salatu ez dutenen (% 10,6) edo lotsagatik salatu ez dutenen (% 11,4) portzentajea zertxobait altuagoak dira. % 5,4k ez zuen salatu baliabide ekonomiko faltagatik. **Bikotekide ohiengandik indarkeria fisikoa edo sexuala** jasan duten emakumeen kasuan, ez salatzeko arrazoi aipatuena bakarrik ebatzi izana (% 48,5) eta harremana bukatu izana (% 32,1) dira. Bikotekide ohiengandik indarkeria jasan dutenen kasuan baino zertxobait handiagoak dira erasotzaileari (% 15,6) edo lotsarengatik (% 16,6) salatu ez dutela diotenak. % 4,2k ez zuen salatu baliabide ekonomiko faltagatik.

Salaketa jarri duten emakumeei (haiek jarritakoa edo beste norbaitek edo erakunde batek jarritakoa) galdetu zaie zein izan den **bikotearen erreakzioa salaketaren aurrean**. Iraganeko bikotekideen indarkeria salatu zuten emakumeen kasuan, % 27,3k esan dute salaketaren ondorioz harremana amaitu zela, % 21,9k adierazi dute bikotekideak berdin jokatzen jarraitu zuela, eta % 20,6k okerrera egin zuela.

Indarkeria salatu duten emakumeei (beraiek, beste norbaitek edo erakunderen batek), salaketa kendu5 zuten galdetu zitzaien⁵. Bikotekide ohien indarkeria salatu zuten emakumeen % 21,3ak salaketa kendu zuen. Emakume horiek salaketa kentzeko arrazoiak hurrengoak izan ziren: beldurra (% 24,7) eta, jarraian, “nire seme-alaben aita da” (% 21,9), “gehiagotan gertatuko ez zela hitz eman zion” (% 19,0), “pena ematen zidan” (% 19,0) eta “banandu ziren” (% 18,1).

4- Laguntza formalaren bilaketa

- Bikotekideren baten aldetik IFSEB jasan duten emakumeen ⁶% **66,9k ez du laguntza formalik bilatu gertatutakoaren ondoren**.
- Bikotekide baten aldetik, oraingoa edo iraganekoa, IFSEB jasan duten emakumeen ⁷% **27,0k7 osasun zerbitzuren** batekin harremanetan jarri behar izan du (sendagilea, osasun zentroa, psikologo/psikiatra, farmazia) bikotekideren baten eskutik, oraingoa edo iraganekoa, bizitzaren uneren batean izandako IFSEB ondorioz. Hau da, **1.380.606 emakumek**.
 - % 7,2a (367.779) **gizarte zerbitzuetara** joan da.
 - Bikotekideren baten aldetik, oraingoa edo iraganekoa, noizbait IFSEBren bat jasan duten emakumeen % 28,9k (1.477.723 emakume) eskatu du laguntza **osasun zerbitzuetan edo gizarte zerbitzuetan**.

% 38,9k (1.989.731 emakume) salatu dituzte edo laguntza formala eskatu dute (zerbitzu sozio-sanitarioak, lege-zerbitzuak, emakumeei lotutako GKEk, abegi-zentroak, Eliza/erlijio erakundea, 016 telefonoa) bikotekideren baten

⁵ Terminologia hori arlo juridikotik zuzena ez bada ere, lagunarteko idazteko modu hori aukeratu zen elkarriketatutako emakumeek uler zezaten.

⁶ Datu hau ezin da zuzenean alderatu 2015eko makroinkestakoarekin. Ikus ikerketaren 11.1 epigrafea gehiago jakiteko.

⁷ Datu hauek ezin dira zuzenean alderatu 2015eko makroinkestakoekin. Ikus ikerketaren 11.1 epigrafea gehiago jakiteko.

aldetik jasandako IFSEBaren ondorioz. Kontuan izanik 16 urtetik gorako 5.108.454 emakumek bikotekideren baten IFSEBren bat jasan duela, **laguntza formaleko zerbitzuetara joan ez diren eta salatu ez duten 3.118.723 emakume egongo lirateke.**

5- Laguntza informalaren bilaketa

IFSEB jasan duten emakumeen % 50,7ak emakumezko lagun bati, % 36,2ak bere amari, eta % 25,4ak bere ahizpari kontatu dio gertatutakoa. **% 22,ak ez dio gertatutakoa bere inguruko inori kontatu.**

Bikotekideren baten partetik IFSEB jasan duten eta inguruko norbaiti gertatutakoa kontatu dieten emakumeei, haren erreakzioa zein izan zen galdetu zaie. Oro har, erreakziorik orokorra, **harremana uztea gomendatzea** izan zen, nahiz eta egungo bikotekidearen aldetik eta bikotekide ohien aldetik indarkeria jasan zutenen arteko aldea handia den: adibidez, egungo bikotekidearen aldetik indarkeria jasan dutenen kasuan, senideek harremana uztea gomendatzen dieten % 24,4 (familiako beste gizonezko kide bat) eta % 57,1 (aita) artean daude; aldiz, bikotekide ohiaren partetik indarkeria jasan dituztenen kasuan, familia laguntzaren portzentajeak % 75,3 (ama) eta % 87,5 artean daude (familiako beste gizonezko kide batek).

- **Egungo bikotekideak jasandako indarkeriaren kasuan, sarri ematen den gomendioa bikotekideari beste aukera bat ematea da, % 20 eta % 30 bitartean.** Halere, bikotekide ohien indarkeria jasan duten emakumeek askoz ere gutxiagotan entzun dute beste aukera bat emateko gomendioa (gehienez % 8,4 amen kasuan).
- Bestetik, bere jarrera leporatu zaien emakumeen portzentajea hutsala da.
- Inguruko pertsonak axolagabekeriak erreakzionatu zuela dioten emakumeen portzentajeak handiagoak dira, nahiz eta txikiak izaten jarraitzen duten, bikotekide ohiak eragindako indarkeria kasuetan gehienbat.
- Indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeria jasan duten eta inguruko norbaiti gertatutakoa kontatu dioten emakumeen kasuan zer gertatzen den aztertuz gero, gaur egungo bikotekidearen kasuan naba handitzen da harremana uztea aholkatzen dutenen ehunekoa, eta murriztu egiten da beste aukera bat ematea gomendatzen dutenena.

Egungo bikotekidearen IFSEB jasan duten emakumeen kasuan, harremana uztea gomendatu dietelarik haiei laguntza emozionala edo materiala eman dietenen portzentajea oso altua da, % 90koa kasu guztietan. Halere, **salaketa jartzea gomendatzen** dioten portzentajea txikiagoa da (amen % 26,3, ahizpen % 35,7, lagun % 27,9).

- **Bikotekide ohiaren IFSEB jasan duten emakumeen kasuan, harremana uztea gomendatu dietelarik haiei laguntza emozionala edo materiala eman dietenen portzentajea oso altua da, % 90koa kasu guztietan.** Halere, **salaketa jartzea gomendatzen** dioten portzentajea txikiagoa da (% 38,7 eta % 68,8 bitartean, amen eta bizilagunen edo lankideen kasuan, hurrenez hurren).

6- Indarkeriatik irtetea

Iraganean bikotekideren baten aldetik IFSEB jasan duten emakumeei galdetu zitzaie **harremana utzi zuten ala ez indarkeria gertakariaren ondorioz.** ⁸**% 77,4ak** erantzun zuen baietz. Indarkeria fisikoa eta/edo sexuala jasan zutenen artean, portzentajea handiagoa da (% 82,8).

⁸ Portzentaje hau ezin da zuzenean alderatu 2015eko makroinkestakoekin. Ikus ikerketaren 14.1 epigrafea gehiago jakiteko.

Indarkeria salatzea, zerbitzu formalen batean laguntza bilatzea (medikua, abokatu, gizarte zerbitzuak, etab.) edo inguruko norbaitekin gertatutakoaz hitz egitea (ama, laguna, aita, etab.), indarkeriazko harremana suntsitzeko aukerak areagotzen dituzte kasu guztietan. Laguntza eskatu duten emakumeak oro har aztertzen baditugu, hiru aukeretako batekin gutxienez, eta egin ez dutenekin alderatzen baditugu, ikus daiteke iraganeko bikoteen indarkeria salatu duten edo laguntza formala edo ez formala bilatu duten emakumeen % **81,9k harremana eten zutela haren ondorioz, eta portzentajea % 49,6ra arte jaisten dela salatu ez zutenen edo indarkeria formala edo informala bilatu ez zutenen artean**. Zehaztuz gero, kausalitate⁹ erlazioa dagoenik esan ezin badugu ere, badirudi **gertatutakoa partekatzearen aldeko edozein ekintzak ondorio onak dituela indarkeriatik irteteko**. **Horregatik da garrantzitsua eskura dauden baliabideen inguruko informazioa zabaltzea eta sentsibilizazio kanpaina onak egitea**.

7- Bikote barruko indarkeriaren ondorioak

Bikotekideren baten, oraingoa edo iraganekoa, indarkeria fisikoa eta/edo sexuala jasan duten emakumeen % **46,6**, bizitzaren uneraren batean (1.353.938 emakume), **lesioak** izan dituzte indarkeria horren ondorioz, eta % 3,8k (109.841 emakumek) azken 12 hileotan.

Bikoteraren baten IFSEB jasan duten emakumeen % **70,0k** diote indarkeria gertakizun horiek **ondorio psikologikoren bat** utzi diotela.

- % 37,5k antsietatea izan duela diote; % 33,9 depresioa. Indarkeria fisikoa edo sexuala jasan dutenen artean, % 47,3k izan du antsietatea, eta % 45,4k depresioa.

Bikotekide baten edo bikotekide ohi baten aldetik IFSEB jasan duten **lautik emakume batek** (% 24,4) eta **hirutik batek** (% 33,0) emakumek jasan du bikoteraren baten edo bikote ohiren baten indarkeria fisikoa edo sexuala, kontsumitu du substantziaren bat (**sendagaiak, alkohola edo drogak**) gertatutakoari aurre egiteko.

Bikotekideren edo bikotekide ohiren baten IFSEBak jasan dituzten emakume ezgaituen % 17,5k adierazi du haien ezgaitasuna bikotekideen indarkeriaren ondorioa dela. Portzentaje hori % 23,4 da indarkeria fisikoa edo sexuala jasan duten emakumeen kasuan.

Genero-indarkeriak ondorioak ditu jasan dituzten emakumeen osasunean, eta horiek denboran irauten dute. Hori dela eta, maizago joaten dira osasun-arretako hainbat zerbitzutarra, nahiz eta iraganeko bikotearen indarkeria gertatu. Beraz, bikotekideren baten bizitzan indarkeria fisikoa edo sexuala jasan duten emakumeen % 41,9k eta edozein motatako indarkeria jasan dutenen % 36,6k dio larrialdi-zerbitzuak noizbait erabili dituela elkarriketak egi aurreko 12 hileetan arazo ed gaixotasun batengatik. Bikotekideen aldetik indarkeria jasan ez dutenek, aldiz, % 25,8. Era berean, indarkeria fisikoaren edo sexu-indarkeriaren bikotekideen emakumeen % 20,9a eta bikotean nola edo halako indarkeria jasan dutenen % 17,5a psikologoarengana, psikoterapiara edo psikiatrarengana joan da elkarriketa aurreko 12 hilabeteetan, ordea, bikotean jasan ez duen ehunekoa % 7,1 da. Indarkeria fisikoaren edo sexu-indarkeriaren bikotekideen emakumeen % 37,6k eta bikotean nola edo halako indarkeria jasan dutenen % 36,0k dio behartuta sentitu direla, elkarriketa egin aurreko 12 hileetan egunen batean ohean gelditzera osasun arazoaren batengatik, ordea, bikotean jasan ez duen ehunekoa % 23,8 da.

Bikote barruan indarkeria jasan ez dutenen 16 urtetik gorako emakumeen % **4,7ak¹⁰ bere buruaz beste egiteko asmoa** noizbait izan badu ere, ehunekoa % **18,5** da haien bizitzan zehar bikote barruko indarkeria motaren bat izan dutenen artean, eta % **25,5**ra iristen da haien **bizitzan zehar bikotekideren baten aldetik indarkeria fisikoa edo sexuala** jasan dutenen artean (hau da, **5 aldiz arrisku handiagoa** dute bere buruaz beste egiteko, haien bikotekideen aldetik

⁹ Zentzu horretan ezin da jakin zergertatu den lehenengo: harremana etetea edo laguntza bilatzea.

¹⁰ Portzentaje hau % 2,9koa baino ez da inkestan galdetzen den indarkeria motarik inoiz jasan ez dutenen artean; portzentaje horrek are argiago uzten du indarkeriak emakumeen osasunean duen eragina.

indarkeria inoiz jasan ez dutenen aldean).

8- Bikote barruko indarkeriak kaltetutako adin txikikoak

Genero indarkeriak ez dio emakumeari bakarrik kalte egiten, haien seme-alabengan ere ondorioak baititu, edo etxe berean bizi diren gainerako adin txikikoengan ere.

Bikotekideren baten aldetik IFSEB jasan duten eta indarkeria gertakariren bat gertatu zenean seme-alabak zituzten eta haien seme-alabek amaren aurkako indarkeria bizi edo entzun zutela dioten emakumeen **% 89,6ak** dio **seme-alabak adin txikikoak zirela indarkeria gertakariak gertatu zirenean**.

Bikotekideren baten aldetik IFSEB jasan duten eta indarkeria gertakariren bat gertatu zenean seme-alabak zituzten eta haien seme-alabek amaren aurkako indarkeria bizi edo entzun zutela dioten emakumeen **% 51,7ak** dio **seme-alabek bere bikotekide oldarkorraren eskutik indarkeria jasan zutela**.

1.678.959 adingabeko emakumea gaur egun indarkeria motaren bat jasaten ari den etxeetan bizi dira. (fisikoa, sexuala, kontrola, emozionala, ekonomikoa edo beldurra) **bikotean**.

- 265.860 adingabeko elkarrizketatutako emakumea gaur egun bikote barruko indarkeria fisiko edo sexuala jasaten ari den etxeetan bizi dira.

H. INDARKERIAREN AURKA BEREZIKI ZAURGARIAK DIREN EMAKUMEAK

1- % 33 edo gehiagoko ezgaitasunen bat ziurtatuta duten emakumeak

Ezgaitasunen bat ziurtatuta duten **emakumeek bikotetik kanpoko indarkeria sexuala proportzio handiagoan** jasan dute haien bizitzan zehar (**% 10,3**) ezgaitasuna ziurtatu gabe dituzten emakumeen aldean (% 6,2).

Ezgaitasunen bat duten emakumeen bizitzan zehar **bikotearen barruko indarkeria handiagoa** da ziurtatu gabeko ezgaitasuna duten kasu guztietan. Beraz, esaterako, ezintasunen bat ziurtatuta duten emakumeen % 20,7k indarkeria fisiko edo sexualen bat jasan du bere bikotekidearen aldetik; aldiz, ezgaitasuna ziurtatu gabe duten emakumeen % 13,8ak.

Ezintasunen bat duten emakumeek **gehiago salatzen dute** bikotekideen IFSEB (**% 30,8**) ezintasunen bat ez dutenen aldean (**% 20,9**). Eraitza honek adierazten du, **nahiz eta oro har ezgaitasunen bat ziurtatuta duten emakumeek bikote barruan indarkeria gehiago jasaten duten ezintasunik ez dutenak baino, gehiago salatzen dutela indarkeria hori**.

- Laguntza formalarekin gauza bera gertatzen da: ezgaitasunen bat duen **% 50,5 laguntza formala eskatu du** (sendagilea, psikologikoa, zerbitzu sozialen laguntza, etab.) bikotekideen baten IFSEBren ondorioz; aldiz, ezintasunen bat ziurtatu gabe dutenen **% 31,1k** egiaztatu du IFSEB jasan duela.

2- 16 eta 24 urte bitarteko emakume gazteak

Emakume gazteek haien bizitzetan zehar **bikotetik kanpo sexu-indarkeria ehuneko handiagoan (% 11,0)** jasan dute, 25 urte edo gehiagoko emakumeak baino (**% 6,0**).

Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeek **ingurukoei gertatutakoa hein handiagoan (% 84,8) kontatu dute**, 25 urte edo gehiagoko emakumeekin alderatuz (% 70,1). Ezberdintasunak emakume gazteek jasandako sexu-indarkeriaz emakumezko lagunekin (% 68,1) edo gizonezko lagunekin (% 31,1) hein handiagoan hitz egin dutelako da, 25 urte edo gehiagoko emakumeekin alderatuz (% 33,8 eta %12,1 hurrenez hurren).

16 eta 24 urte bitarteko emakumeen % 89,2ak salatu, laguntza formala bilatu edo sexu-indarkeriaz hitz egin du bikotetik kanpo inguruko pertsonekin eta 25 urte edo gehiagokoen % 72,6ak.

Sexu-jazarpenen prebalentzia 16 eta 24 urte bitarteko emakumeetan **askoz ere handiagoa** da, 25 urte edo gehiagokoen alderatuz: % **60,5**ak momenturen batean jasan du eta % 34,7ak 15 urte bete baino lehen, 25 urte edo gehiagoko emakumeek % **38,0** eta %16,6 ordea, hurrenez hurren.

Stalking edo eraso errepikakorren prebalentzia 16 eta 24 urte bitarteko emakumeetan handiagoa da, 25 urte edo gehiagokoen alderatuz: % 26,2ak momenturen batean jasan du eta % 13,0ak 15 urte bete baino lehen, 25 urte edo gehiagoko emakumeek % 13,9 eta %2,6 ordea, hurrenez hurren.

3- 65 urte edo gehiagoko emakumeak

65 urte edo gehiagoko emakumeenganako bikote barruko indarkeriaren prebalentzia txikiagoa da 16 eta 24 urte bitartekoekin alderatuz.

- Emakume helduen arteko prebalentzia txikiagoa bikotekide ohien indarkeriaren intzidentzia txikiagoaren ondorioz azaltzen da. Aldiz, egungo bikotean gertatzen dena behatuz gero, emakume helduek indarkeria prebalentzia handiagoak erakusten dituzte 65 urte baino gutxiagoko emakumeekin alderatuz.

65 urte edo gehiagoko emakumeak bikotekide ohien IFSEB-aren ondorioz gutxiago joan dira (% 25,1) laguntza zerbitzu formaletara, 16 eta 24 urte bitarteko emakumeak baino (% 37,3). Ezberdintasunak 65 urte edo gehiagoko emakumeak psikologoarengana edo psikiatrarengana gutxiago joaten direlako dira.

Emakume helduek jasandako indarkeria haien inguruko pertsonen gainontzeko emakumeak baino hein txikiagoan kontatu diete: 65 urte edo gehiagoko emakumeen % 54,5ak haien inguruko pertsonen haien bikoteraren baten IFSEB kontatu die eta 16 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 81,3ak.

- Emaizta hauek erakusten dute **emakume helduak gainontzeko emakumeekin alderatuz indarkeria hein handiagoan ezkututzen dutela**, horrek dakartzan inplikazio guztiekin.

65 urte edo gehiagoko emakumeak bikotekide ohiekin indarkeriaren ondorioz harremana eten zuten hein txikiagoan (% 49,9) 16 eta 24 urte bitarteko emakumeak baino (% 81,4). Alabaina, harremana eteteko gehien errepikatzen den arrazoia bikotearen heriotza da (+65: 13,3%, 16-64: 0,7%).

Bikote kanpoan emakume helduek sexu-indarkeria ehuneko txikiagoan (% 2,8) jasan dute haien bizitzetan zehar 16 eta 64 urte bitarteko emakumeekin alderatuz (% 7,7).

- Bikotetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakume helduek ingurukoei hein txikiagoan (% 52,2) kontatu diete, 16 eta 64 urte bitarteko emakumeekin alderatuz (% 75,2).

4- Atzerrian jaiotako emakumeak

Bikotekidearen aurkako indarkeriaren intzidentzia handiagoa da atzerrian jaiotako emakumeetan Espainian jaiotakoekin alderatuta.

- Bikotearen IFSEB salatu dute hein handiagoan (% 28,6) Espainian jaiotakoak baino (% 20,0)

Atzerrian jaiotako emakumeek haien bizitzetan zehar bikotetik kanpoko sexu-indarkeria jasan dute hein apur bat handiagoan (% 9,8) Espainian jaio diren emakumeekin alderatuta (% 6,0).

- **Atzerrian jaiotako emakumeen % 5,2 bortxatua izan da bere bikotea ez den pertsona batengandik eta**

Espainian jaiotako emakumeen % 1,8.

Atzerrian jaiotako emakumeek Espainian jaiotako emakumeek baino hein handiagoan aipatzen dute sexu-indarkeria jasan izana familiako gizonezko batengandik (% 37,5 vs. % 17,6) eta hein txikiagoan gizonezko ezezagunak (% 27,4 vs. 42,0%).

Beste herrialde batean jaio diren eta sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 28,9ak adierazi du sexu-indarkeria Espainian bakarrik pairatu dutela, % 60,2 ak atzerrian gertatu zela eta % 10,9ak Espainian zein atzerrian izan zela. Aitzitik, Espainian jaio diren eta sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 97ak esan du Espainian bakarrik pairatu zutela.

5- Udalerrri txikietan bizi diren emakumeak

Orokorrean udalerrriaren neurriaren arabera ezberdintasunak txikiak dira.

Zenbat eta handiagoa izan udalerrria, orduan eta emakume gehiagok adierazi dute hitzez bikotekide ohiengandik edo oraingo bikoteetatik jasandako indarkeria salaketaren edo laguntza formal zein informala bilaketaren bitartez: 2.000 biztanlera arteko udalerrietan bizi diren % 66,4, 2.001 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren % 78,5 eta 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan bizi diren emakumeen % 83,3ak.

Udalerrri txikietan bizi diren emakumeen prebalentzia udalerrri handiagoetan bizi direnena baino txikiagoa da: 2.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerrietan bizi diren % 33,4, azken 4 urteetan % 10,8, azken 12 hilabeteetan % 7,2 eta 15 urte bete baino lehen % 16,2. 2.001 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren emakumeekin, % 36,4, % 16,4, % 9,1 eta % 16,3 hurrenez hurren, eta 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan bizi diren emakumeekin alderatuz, % 41,6, % 19,0, % 10,5 eta % 19,1 hurrenez hurren.

Ikerketa osoa hemen deskarga daiteke:

<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/Macroencuesta2019/home.htm>